

GURE LAN ETA GIZARTE ESKUBIDEEN ALDE

ELA, LAB, STEE-EILAS sindikatuok gogor salatzen ditugu, Euskal Autonomi Erkidegoko eta Madrilgo gobernuak azken lau urteotan ezartzen ari diren murrizketak, neurri antisozialak eta zerbitzu publikoak desegiteko politikak. Denbora tarte horretan zerbitzu publikoak jo puntuaren jarri dituzte, eta lorpen sozialen oinarri izan diren zerbitzuak behin eta berriro erasotzen ari dira guztiz ahulduz, lanpostuak suntsitu eta bertako langileen baldintzak okertu eta zerbitzuen kalitatea bera arriskuan jarriaz.

Murrizketa politika honetan Ikastolak eta Gizarte Ekimenezko ikastetxeak ere kaltetuak izan dira, aurrekontuetan zenbait diru-partida (ikasle etorkinen laguntzarakoa, irakasleen prestakuntzari dagokiona..) murrizketa izugarriak izan dituztelarik. Horrek guztiak ondorio larriak ekarriko ditu hezkuntza kalitatean.

Atzerako bide makur horretan, Ekimen Soziealeko ikastetxe eta ikastoletako langileok ez gara salbuespena. EAEko Hezkuntza Sailak alde bakarreko erabakiz murrizketak ezarri zituen, eta titularrek (Kristau Eskola, Partaide, AICE, EIB...) erabaki horri men eginez murrizketak indarrean jarri zituzten.

Gizarte ekimenezko ikastetxe eta ikastoletako langileok, emplegu galerak, kaleratzeak eta lan baldintzen galerak jasaten ari gara, besteak beste 2010eko udatik aurrera hitzarmen ez betetzeak ekarri digun soldata jaitsiera jasaten ari gara. Auzitegi Gorenak, Ikastolek eta Gizarte ekimeneko ikastetxeek langileoi unilateralki ezarritako soldata murrizketak legez kanpokotzat jo eta patronalek soldatak bere osotasunean ordaindu behar dituztela ebatzi arren, kasu gehienetan, ebazpenari muzin egin eta murrizturiko soldatak ordaintzen darraite.

Ondorioz, 2008-09 ikasturterako adosturiko lan hitzarmena, soldatari dagokionean, ez da betetzen ari eta sinatutakoa betetzea lehen urratsa da etorkizuneko akordioak zilegitasunez negoziatu ahal izateko. Aldi berean, 2008-09 ko lan hitzarmena edozein negoziazio bideratzeko oinarrizko abiapuntua dela ere berresten dugu.



Titularrek, ordea, balizko hitzarmen berriaren soldatak Jaurlaritzaren finantzazioarekin lotu nahi dituzte, baina gero hura hobetzeko Eusko Jaurlaritzarekin konfrontazioan sartzeko prest ez daude. Horri begira, EAEko Hezkuntza Sailari esijitzen diogu abian jar dezala hezkuntza eragileekin adostutako lege berri bat.

Lanpostuen galera eta azken lau urteotan langileen erosmen ahalmena ia %2oa galdu izan arren, patronalek murrizturiko soldata taulak finkatzea proposatzen dute, horretarako lan erreformaren bitartekoak erabiliz.

Salatutakoa gutxi balitz, errealtitate honi Madrildik datorkigun bigarren eraso bat gehitu behar diogu, hain zuen LOMCE aurreproiektuak gure hezkuntzan suposatzen duena. Ildo beretik ELA, LAB, STEE-EILAS sindikatuok ez dugu inolako murrizketarik onartzen eta ez gaude prest LOMCE aurreproiektuak inposatu nahi dituen atzerapausoak onartzeko. Guztiz bestela, gure hezkuntza sistemak baliabide eta inbertsio handiagoa behar dituela ulertzten dugu eta inolako injerentziarik gabe euskal hezkuntza eragileok eta euskal jendartea erabaki behar dugu nolako hezkuntza behar eta nahi dugun.

Guzti hau dela eta, ELA, LAB, STEE-EILAS sindikatuek dei egiten dizuegu Gizarte Ekimenezko ikastetxe eta ikastoletako langile eta ordezkari orori maiatzaren 30ean Euskal Herriko mugimendu sozial eta sindikatuok deituriko greba orokorrarekin bat egin dezazuen, gure borroka milaka euskal langileena ere badelako eta inoiz baino areago mobilizazioa langileon lan tresna baliotsua delako lanpostuen eta lan baldintza duinen defentsarako.

ELA-LAB-STEE-EILAS
#m30greba



¡¡¡EN LUCHA POR NUESTROS DERECHOS LABORALES Y SOCIALES!!!

Los sindicatos ELA, LAB y STEE-EILAS queremos denunciar una vez más los recortes, las medidas antisociales y las políticas para desmantelar los servicios públicos que están imponiendo los gobiernos de Madrid y de la CAV estos últimos 4 años. Han puesto los servicios públicos en su punto de mira y atacan, una y otra vez, servicios que han sido la base de nuestras conquistas sociales, debilitándolos, destruyendo puestos de trabajo, empeorando las condiciones laborales de sus trabajadoras y trabajadores y poniendo en peligro su calidad.

También los Centros de Iniciativa Social e Ikastolas han sido perjudicados por esta política de recortes y determinadas partidas presupuestarias (ayudas para alumnado inmigrante, formación de profesorado, y otras) han sufrido drásticos recortes. Todo ello tiene consecuencias graves en la calidad de nuestro sistema educativo.

En este perverso proceso de retroceso en nuestro derechos, las trabajadoras y trabajadores de los Centros de Iniciativa Social e Ikastolas no somos la excepción. La Consejería de Educación del Gobierno Vasco impuso los recortes de manera unilateral y los titulares de nuestros centros (Kristau Eskola, Partaide, AICE, EIB), obedeciendo ciegamente, nos aplicaron directamente dichos recortes.

Las trabajadoras y trabajadores de los Centros de Iniciativa Social e Ikastolas venimos sufriendo despidos y nuestras condiciones laborales siguen deteriorándose. El incumplimiento de los convenios ha supuesto que desde el verano de 2010 nuestro salarios se vean recortados. Aunque el Tribunal Supremo dictaminó que los recortes impuestos de manera unilateral eran ilegales y, por tanto, debían pagarlos en su totalidad, los Centros de Iniciativa Social y las Ikastolas siguen haciendo, en su mayoría, caso omiso de la sentencia y pagan los salarios recortados.

En consecuencia, los convenios colectivos firmados en 2008-09 no se cumplen en lo que se refiere a salarios y para poder negociar, con legitimidad, futuros acuerdos, el primer paso es, sin duda, cumplir lo acordado. Al mismo tiempo, volvemos a manifestar que los convenios colectivos de 2008-09 son el punto de partida para encauzar cualquier negociación.



Sin embargo, los titulares quieren que en los hipotéticos nuevos acuerdos nuestros salarios queden ligados directamente a la financiación que reciban del Gobierno Vasco; pero para ello, para mejorar la financiación, no están dispuestos a enfrentarse a él. Por ello, exigimos al departamento de Educación que ponga en marcha, junto con los agentes educativos, una nueva ley.

A pesar de la pérdida de puestos de trabajo y de una pérdida de nuestro poder adquisitivo cercano al 20% en los últimos 4 años, los titulares de nuestros centros pretenden fijar las tablas salariales con los salarios recortados, valiéndose para ello de los instrumentos que les proporciona la reforma laboral.

Por si todo lo anterior fuera poco, a todo ello hay que añadir un nuevo ataque desde Madrid a nuestro sistema educativo; el anteproyecto de la LOMCE . Así como no admitimos recortes, ELA, LAB y STEE-EILAS tampoco estamos dispuestos a aceptar las consecuencias negativas que supone su imposiciónº. Al contrario, creemos que nuestro sistema educativo necesita más recursos y mayor financiación y que la ciudadanía vasca y los agentes educativos vascos tenemos que decidir, sin ningún tipo de injerencia, qué sistema educativo necesitamos y deseamos.

Por todo ello, los sindicatos ELA, LAB y STEE-EILAS hacemos un llamamiento a todas las trabajadoras, trabajadores y representante de los Centros de Iniciativa Social e Ikastolas a secundar la convocatoria de huelga general que sindicatos y agentes sociales de Euskal Herria hemos realizado para el próximo día 30 de mayo. Porque nuestra lucha es, también, la de miles de trabajadores y trabajadoras y porque la movilización es un instrumento valioso para la defensa de nuestros derechos laborales y sociales.

ELA-LAB-STEE-EILAS
#m30greba

